

4. ERANSKINA

BASAURIN GIZARTE-ERALDAKETARAKO SENTSIBILIZAZIO- ETA HEZIKETA-EKINTZAK EGITEKO ESKABIDE-FORMULARIOA

ERAKUNDEAREN IFZ.	
Erregistroa eta zenbakia (Basaurik betetzekoa)	

ERAKUNDE ESKATZAILEA ¹ (edo partzuergoaren izenean diharduena, hala badagokio).	
EKINTZAREN IZENA	
GAIAK ²	
PROPOSAMENAREN DATA	
EKINTZAREN KOSTUA GUZTIRA	
BASAURIKO UDALARI ESKATUTAKO ZENBATEKOA ETA EHUNEKOA ³	%

¹ Partzuergoa bada, eranskin gisa atxiki behar zaio eskabideari dagokion hitzarmena, 2024ko Oinarrietan aurreikusia, eta parte-hartzaile guztien eginkizuna eta ekarpena argi azaldu.

² Berrikusi lehentasunak 2024ko Oinarrietan

³ Berrikusi mugak 2024ko Oinarrietan

1. ERAKUNDE ESKATZAILEA

- 1.1. **Erakunde eskatzailea**- (partzuergoa baldin bada, osatzen duten erakundeen datuak eman behar dira, eta eginkizun eta erantzukizunen banaketa eranskin gisa atxiki behar zaio eskabideari)

Datu orokorrak

Izena	
IFZ	
Izaera juridikoa (elkartea, fundazioa, kongregazioa, beste batzuk.)	
Eratze-data ⁴	
Ekintzaren arduraduna eta haren kargua	

Azken bi urteotan, erakunde eskatzaileak garapena edota sentsibilizazioa sustatzeko egin dituen ekintza nagusiak (beharrezkoa izanez gero, lerro gehiago erabil ditzakezu; eta memoria-txostenak edukiz gero, eranskin gisa atxiki diezazkiokezu eskabideari).

Urtea	Ekintza eta kokapena	Finantzaketa-erakundeak	Diru-laguntza guztira

Azken bi urteotan, erakunde eskatzaileak hegoaldeko herrialdeetan garapena sustatzeko egin dituen lankidetzaproiektu nagusiak (beharrezkoa izanez gero, erabili lerro gehiago)

Urtea	Proiektua eta kokapena	Finantzaketa-erakundeak	Diru-laguntza guztira

Erakundearen jarduna Basaurin/Bizkaian (hala badagokio, bereizi Basauriko datu zehatzak)

Bazkide-kopurua	
Profesionalak (liberatuak)	
Boluntarioen kopurua	
Helbidea	
Telefono-zenbakia	
Helbide elektronikoa	
Zerrendatu erakundeak azken bi urteotan egin dituen ekintzak: sentsibilizazioa sortzeko, garapenerako hezkuntza-ekintzak, kanpainak, gizarte-jarduerak eta abar.	

⁴ Gutxienez, aurreko bi urteetan, dagokion erregistroan Bizkaian edo Basaurin inskribatua egon behar izan du.

2. EKINTZAREN LABURPENA

2.1 Ekintzaren izena

--

2.2 Ekintzaren mota eta maila⁵ (HG, sentsibilizazioa, ikerkuntza, gizarte-mobilizazioa; formala, ez-formala, informala)

--

2.3 Kokapen zehatza⁶ (Basauri osoan; udalerriko auzo zehatzetan; udalaz gaineko helmena...)

--

2.4 Gaiak⁷

--

2.5 Ekintzaren laburpena (Gehienez ere 12 lerro. Honako hauek aipatu behar dira: jarduera-mota eta maila, gaiak, xede-taldeak, metodologiak eta tresnak, talde parte-hartzaileak eta zer lortu nahi den epe laburrean eta epe luzean)

--

2.6 Prozesuen esparrua (erakunde eskatzaileak HG eta S arloko estrategia bat garatu baldin badu, eranskin gisa aurkeztu dezakezue)

Aurreko jarduera baten jarraipena al da?	Bai	Ez
Baietz erantzun baduzue, azaldu nola lotuko zaion jarduera horri, eta zein prozesutan sartuko den		

2.7 Iraupena

Aurreikusitako egikaritze-aldi osoa ⁸ (zenbat hilabete)	
Aurreikusitako hasiera-data ⁹	
Aurreikusitako amaiera-data	

⁵ Kontuan izan 2024ko Oinarrietan ezarritako lehentasunak.

⁶ Gogoan izan ekintzak ondorio argiak eta zehatzak izan behar dituela Basauri udalerrian.

⁷ Kontuan izan 2024ko Oinarrietan ezarritako lehentasunezko gaiak.

⁸ Gehienez ere 12 hilabete onartzen dira

⁹ Deialdia egin duen urtean hasi behar du, gehienez ere diru-laguntza jaso eta bi hilabetera.

3. EKINTZAREN GAIAK

3.1 Azaldu nola egokitu dizkiezuen gaiak Basauriko Udalak zehaztu dituen eta oinarrietan ezarrita dauden lehentasunei. (Udal erakundearen beste ekintza edo ekimen batzuekiko sinergiak baldin badaude, edo ekintza eta ekimen horien osagarri badira, berariaz aipatu).

3.2 Azaldu nola lantzen diren gaiak EAEko, Estatuko edo munduko beste agente batzuen hezkuntza-/sentsibilizazio-lehentasunetan eta estrategietan (jarduera-esparru honetan berariazko estrategiak, arau aplikagarriak, abiarazitako ekimenak, konpromisoak, aitorpen unibertsalak, etab. baldin badaude, eskabideari erantsi diezazkiokezue).

3.3 Justifikatu zer garrantzi edo interes duten gaiek berariazko xede-erkidegoentzat. (Aurretiko diagnostikoak, oinarrizko ildoak, kontsultak, etab. egin badituzue, eranskin gisa gehitu diezazkiokezue eskabideari)

3.4 Azaldu iparralde-hegoalde ikuspegia eta gaiekin duen lotura (Besteak beste, adierazi hegoaldeko herrialdeen egoeraren kausak eta ondorioak, kulturen arteko ezaugarriak, etab.)

4. INPLIKATUTAKO TALDEAK AZTERTZEA

4.1 Deskribatu xede-taldea edo ekintzaren hartzaile zuzenak¹⁰ (Identifikatu, aipatu haien ezaugarriak eta zehatz-mehatz zenbatu. Azaldu zergatik eta nola aukeratu dituzuen, eta, bereziki, eragin biderkatzailea eta aldez aurretiko motibazioa. Deskribatu haien egitekoa eta ekarpena, eta nola bideratuko den ekintza osoan. Abalik edo bermerik baldin badago, haien berri eman eta erantsi eskabideari).

4.2 Deskribatu beste talde¹¹ batzuen eginkizuna ekintzan. (Aipatu zergatik aukeratu dituzuen, zertan lagunduko duten, eta zer aurreko harreman zuen haiekin eskatzaileak edota tokiko erakundeak. Abalik edo konpromisorik baldin badago, erantsi eskabideari).

¹⁰ Kontuan izan 2024ko Oinarrietan ezarritako lehentasunak.

¹¹ Boluntarioak, ikastetxeak, tokiko agintariak, aisialdiko taldeak, elkarteak, beste GGKE batzuk, hedabideak, etorkin-taldeak, hegoaldeko erakundeak, etab.

5. EKINTZAREN DISEINUA

5.1 Zer aldaketa sakon eta iraunkor lortu nahi den (Aipatu politika- edo jarrera-arloan zer aldaketa lortu nahi den –jokabideei, jarrerei, ohiturei, ingurumenari eta abarrei dagokienez–, nahiz eta ekintzaren bitartez soilik aldaketa horiek erabat bermatzea ezinezkoa izan. Ahal denean, adierazi nola neurtuko diren eta noiz antzemango diren)

5.2 Zer lorpen zuzen edo epe laburrerako lorpen lortu nahi den (Aipatu, zehatz-mehatz, zer lorpen edo aldaketa –atal honetan ez aipatu jarduerarik– guztiz bermatu ahal izango den, ekintza amaitutakoan; bereziki, xede-talde zuzenen ezagutzei eta jokabideei dagokienez. Adierazi nola antzeman eta neurtuko diren, kantitateari eta kalitateari dagokienez)

5.3 Arrisku-faktoreak (Adieraz zerk izan dezakeen eragina ekintzan, nolako garrantzia eman zaion, eta, batez ere, zer-nolako neurriak hartuko diren, hura gerta ez dadin edo, gertatzekotan, haren ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezen)

6. EKINTZAREN LABURPENA

6.1 Jarduerak azaltzea (Adierazi zeintzuk izango diren ekintzaren jarduera nagusiak, ezarritako helburuak lortze aldera; eta labur adierazi jarduera bakoitzari buruz beharrezko deritezuen zehaztapen praktikoak: arduradunak, metodologiak, tresnak, egikaritze-modua, helmena, garrantzia, teknologia berrien erabilera, etab. Horrekin batera, azaldu jarduera komunak, prestatze-, zabalkuntza- eta azken ebaluazio-jarduerak, hala badagokio).

6.2 Kronograma (Idatzi jarduerak kronograman, eta gurutze batez adierazi haietako bakoitza noiz egitekoa den)

Jarduera	Hila											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12

7. GENERO-EZAUGARRIAK¹²

7.1 Gaiak (Generoari buruzko ikerlanak/diagnostikoak, genero-ezaugarriak dituzten oinarritzko ildoak. Horri buruzko agiririk baduzue, erantsi eskabideari)

7.2 Parte-hartzea (Zehaztu dituzuen emakume-taldeak, eta nola hartuko duten parte. Berdintasun- edo emakume-arloko tokiko agintariak eta nolako inplikazioa izango duten)

7.3 Diseinua eta egikaritzapena (Generoari buruzko lorpenak edo adierazleak; zer estrategia baliatuko diren, emakumeek jardueretan parte har dezaten; genero-adituen parte-hartzea taldearen barnean)

¹² Zeharkako gaiak badira ere, eta, ziur asko, aurreko ataletan jada aipatu diren arren, atal honetan horri buruzko ezaugarri nagusiak sistematikoki biltzeko eskatzen da. Ekintzaren xede nagusia emakumearen jabetasuna baldin bada, atal hau bete gabe utzi behar da.

8. AURREKONTU OSOAREN LABURPENEA

KONTU-SAILAK ¹³	BASAURIKO UDALA ¹⁴	Beste erakunde batzuk	Erakunde eskatzailea	GUZTIRA
A. GASTU ZUZENAK				
A.I Tresnak, materiala eta hornigaiak				
A.II GGKEko berezko langileak				
A.III. Kanpoko zerbitzuak				
A.IV. Dietak eta bidaiak-gastuak				
GASTU ZUZENAK GUZTIRA				
B. ZEHARKAKO GASTUAK¹⁵				
B.I Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak				
ZEHARKAKO GASTUAK GUZTIRA				
KOSTUA GUZTIRA EUROTAN				

¹³ Kontu-sail bakoitzean onartzen diren gastu-motak jakiteko, begiratu 2024ko Oinarriak.

¹⁴ Gehienez ere proiektuaren guztizko kostuaren % 80 onartzen da. Ezin dira gauzazko ekarpenak egin, erakunde eskatzaileko langileak izan ezik.

¹⁵ Gehienez ere diru-laguntzari esleitutako kostu zuzenen % 10 onartzen da.

A.III. Kanpoko zerbitzuak					
A.IV. Dietak eta bidaia-gastuak					
GASTU ZUZENAK GUZTIRA					

